Kakontzi kapitainak begiurdindun mamuarekin egingo du topo, baita banpiro batekin edo eta gizotso batekin ere!

Lortuko ote du bere beldurrei aurre egitea?



nubeOCHO

ISBN: 979-13-87834-13-5 www.nubeocho.com

KAKONTZI KAPITAINAREN BELDURRAK

José Carlos Andrés Sonja Wimmer

nubeOCHO

# KAKONTZI KAPITAINAREN BELDURRAK



José Carlos Andrés

Sonja Wimmer



*Sergi-ri, tintaz eginiko pertsonaiak*
*koloretako barre bihurtzen dituenari.*

José Carlos Andrés

*Luna-ri, nire pirata txikiari: ez sekula beldurrik*
*izan zoriontsu egiten zaituen hori bizitzeari.*

Sonja Wimmer

**Kakontzi kapitainaren beldurrak**
Somos8 Bilduma

© testuarena: José Carlos Andrés, 2014
© ilustrazioena: Sonja Wimmer, 2015
© argitalpenarena: NubeOcho, 2015
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2025
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Los miedos del Capitán Cacurcias*

Lehen argitalpena: Iraila, 2025
ISBN: 979-13-87834-13-5
Gordailu Legala: M-10698-2025

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatua dago lan honen kopiaketa.



# KAKONTZI KAPITAINAREN BELDURRAK

José Carlos Andrés

Sonja Wimmer

nubeOCHO




Kakontzi kapitainak

pirata aurpegia du, piratak bezala janzten da
eta piratek bezala
egiten du oihu:

Zalantzarik gabe, berebiziko
**pirata** bat da.



# Kakontzik ez zion ezeri beldurrik:

ez marrazoei, ez gauari, ez ekaitzei... ez eta ekaitz gau bateko marrazoei ere! Hain zen ausarta, ezen iraungitako jogurtek ere ez baitzuten beldurtzen. Ez eta nesken musuek ere. Denetan ausartena zen!



Baina, duela gutxi, arrazoi berezirik gabe,

kapitaina edozeren beldur izaten hasi zen:

beldurra zien bere zapata gogorrei, bere kasakak eragindako azkurari,

bere altuerari, tripulazioak bere inguruan barre egiteari...

Guztiari hartu zion beldurra!

Baita bere itzal propioari ere.



Kakontziren itsasontziak
«Nabibagarri Mehatxagarri» zuen izena,
eta bertako pirata guztiak
basatiak, beldurgarriak eta ankerrak ziren.

Barne-barnean asko maite zuten haien kapitaina, nahiz eta hau ezin zuen inork jakin, piratek ez baitute sekula halakorik esaten.

Kakontzik hain beldur handia zuela ikusita, ordea, lagundu egin behar ziotela erabaki zuten.



Hausnartu eta hausnartu ostean...
begiurdindun mamuaren itsasontzira
eramatea besterik ez zitzaien bururatu.

—Halako lagunekin, zertarako etsaiak! —esan zuen Kakontzik.

Egiari zor, buruari eragitea ez zen
pirata basati hauen indargunea.

Kakontzi itsasontzian bakarrik geratu zenean, gertatu beharrekoa gertatu zen: mamu bat agertu zen.

Baina ez zen edozein mamu...

**BEGIURDINDUN**

**MAMUA ZEN!**

